

EMAKUMEA. 2001eko Martxoaren 8an abiatutako ekimenaren emaitza da atzo aurkeztutako erakunde berria

Eider Goenaga | DONOSTIA

Euskal Herriko Bilgune Feminista erakunde eragilea sortu zuten atzo, Donostian. Bilgunearen sustatzaileak 2001eko Martxoaren 8aren inguruan eratutako ekimenen elkartutako emakumeak dira, alegia, *Berdintasunean Oinarritutako Euskal Herria* sortzera goaz ekimenekoak. «Euskal Herri osoan eta hainbat esparru sozialetan jarduten dugun euskal emakume feministak gara, eta euskal emakume zapalduaren bozgorailu izaten saiatuko gara», adierazi zuten atzo egingutako aurkezpen batzarrean proiektu berriaren bultzatzaileak.

Bilgune Feministak, baina, ez du erakunde bakartu gisa lan egin nahi. «Neoliberalismoari eta patriarkatuari aurre egiten aurrerakoia diren mugimenduekin batera —emakume talde, erakunde feminista eta gainerako eragile sozialekin batera— lan eginez, eredu sozial aske bat bultzatu nahi dugu». Izan ere, horretarako sortu dute zehazki Bilgune Feminista: «dinamika berri bat sortu eta bultzatzeko eragile feminista» izan nahian, eta «dinamika horretan partaide izan daitezkeen eragileentzat bitarteko» izateko.

Emakumeen borroka norabide bakarrean

Ildo horretan, emakume taldeek duten aniztasuna errespetatuz bideratuko du Bilgune Feministak bere lana; baina beharrezkotzat ikusten du guztien ekimenak norabide berean planteatzea: «Sektore estrategikoetan mugimendu feministek egiten duten borroka eta gugeu bultzatzen saiatuko garen ekimenek norabide bera izan

Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu dute, erakunde eragilea izan dadin

«Dinamika berri bat bultzatzeko eta sortzeko eragilea» izango da



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Euskal Herriko Bilgune Feminista aurkezteko batzarrean 80 pertsona inguru izan ziren atzo.

beharko lukete. Gure ustez, oso eraginkorra izan daiteke lehen-tasuneko helburuen arabera zehaztuko ditugun lan irizpideak gainerako eragile feministekin hitzartzea.

Helburuen artean, argi dago egungo eredu patriarkal eta

diskriminatzaileari aurre egitea dutela, baina, betiere, Euskal Herria lanerako esparru gisa hartuta. «Beraz, herri moduan bizirik iraun, garatu eta hobetzeko bidean, etorkizun bidezkoagoa helburu duten erakunde sozial abertzale eta

aurrerakoiekin eskuz esku ariko gara», adierazi zuten sustatzaileek. Hala, bi zapalkuntza gaitzeko egingo dute lan: emakumeen zapalkuntza gaitzeko, batetik, eta Euskal Herriaren zapalkuntza gaitzeko, bestetik —hor ikusten

baitute berdintasunean oinarritutako gizarte berri bat lortzeko modua—.

Lan egiteko modua

Lan egiteko moduari dagokionez, Bilgune Feministako kideek dagoeneko egin zuten azterketa orokor bat, Leitzan abenduaren 14an, 15ean eta 16an antolatutako topaketetan —400 emakume elkartu ziren, eta orduan ikusi zuten topaguneari erakunde izaera emateko beharra—. Orain, azterketa hori proposamenetan zehaztu dute; kultura, komunikabideak, irakaskuntza eta sozioekonomia arloko proposamen konkretuetan.

Proposamen zehatz horiek garatzeko, hiru mailatan lan egingo du Bilgune Feministak. Gune Teknikaria bilgunearen konpromiso iraunkor eta publikoa hartuko duen emakume taldea izango da; Eragileen Gunea, berriz, hainbat sektoretan aritzen diren eragile feministek eta Gune Teknikarian lan egingo dutenek osatuko dute; eta, azkenik, Emakumeon Batzarra osatuko dute proiektuarekiko interesa duten emakume guztiekin —«Bilgune Feministaren kontraste gune nagusia izango da», bultzatzaileen arabera—.

Horrez gain, datorren ikasturterako abian jarriko dituzten hiru tresna baliatuko dituzte lanerako. Informazio Gunea —informazio sortzaile eta hartzaile izango da, eta emakumearen inguruan landutako guztia biltegi modukoa ere bai—; Ikerketa Zentroa —egoeraren azterketa «desitxuratu gabeak» egingo ditu—; eta Behatoki Feminista —administrazioek garatzen dituzten politika orokor eta berezien azterketa eta bilketa egingo du—.

HELBURU NAGUSIAK

Hiru lehentasun

Euskal Herriko Bilgune Feministak, atzo sortua izanik ere, oso argi ditu zein diren jarraitu beharreko helburu nagusiak. Ondoren ageri diren hiru lehentasunak lortzen ahalegingo da erakunde berria.

BIZI-BALDINTZAK HOBETU

«Duintasun eta independentzia ekonomikoa bermatu eta bizitzako eremu guztietan emakumeak pairatzen dituen diskriminazioei aurre egitea».

INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA. «Independentzia ekonomikoa emakumeen erabakitze ahalmena eta autonomia bermatzeko oinarritzeko baldintza da».

LAN PRIBATUAREN ONARPENA. «Eremu pribatuko lanaren onarpen soziala beharrezkoa da».

DISKRIMINAZIOA GAINDITU. «Emakumeen diskriminazioa gaitzeko, oinarritzeko eskubide demokratiko izateaz gain, bizitza duinerako oinarria da».

BEREIZKETA HIERARKIKOA GAINDITU

«Sexuen arteko bereizketa hierarkikoa gaitzeko duten harreman pertsonal eta kolektiboak sortzea».

GIZARTEA ERALDATU. «Irakaskuntza, kultura eta komunikabideak gizartearen eraldatzeko bitarteko bihurtu behar dira».

EREDUAK GAINDITU. «Balio ekonomiko, sozial edo politikoa duten jarduteko, pentsatzeko eta izateko era gehienak gizontasunarekin lotzen dira oraindik ere. Berdintasunaren gizarteak bere burua maskulino bihurtu du. Gero eta homogeneoagoak diren eredu horien aldean, beste identitate batzuek duten lekua oso txikia eta marjinala da. (...) Beraz, identitate kolektibo eta indibidual berriak asmatzeko eta eratze bidean, egungo ereduak sortzen dituzten kalteak, bultzatzen dituzten bizitzeko ereduaren helburu eta balioak agerian utzi behar ditugu».

BEREIZKETAREN ONDORIOAK ZABALDU

«Sexu bereizkeriaren garapen historikoa, bere ondorioak eta gaur egun duen gauzatzeko era gizartearen jakinaraztea».

PATRIARKATUAREN ALTERNATIBAK. «Patriarkatuaren logika historikoa, existentzia objektiboa eta patriarkatuaren aurka dauden proiektu politikoak ezagutaraztea, gizarteak emakumeen egoerari buruz kontzientzia har dezan».

FEMINISMOA EZAGUTARAZI. «Nazioarteko eta Euskal Herriko mugimendu feministaren borroka, antolatzeko erak, planteamendu teorikoak, proposamenak eta beste ezagutu behar dituztenak».

KONTZIENTZIA INDARTU. «Oinarritzeko edukia argituz, emakume zein gizonezkoen memoria kolektiboa eta sexu bereizkeriaren inguruko kontzientzia indartu daiteke. Oinarritzeko eduki horiek ez desitxuratzeak eta jendartearen ezagutarazteak edozein eragile publikorentzat derrigorrezkoa behar luke».